

ANIMALIEN ASMAKIZUNAK

Nik esan, zuk entzun, pentsatu eta erantzun :

1) Alde batetik bestera dabil lurrazpitik, zulo asko egiten begiak itxirik, ez du ezer ikusten eta saga dirudi.

ZER DA ?

2) Ez du hankarik eta badabil, bidea egiten du gelditu barik. Ez da idia eta adarrak dauzka.

ZER DA ?

3) Horman gora doa galdara ipurdian daramala.

ZER DA ?

4) Zer dela eta zer dela... hor non dabilen etxea sorbaldan duela.

ZER DA ?

5) Etxea aldean daramat hankarik gabe eramanez, nire aztarna uzten dut zilarrezko hari batez.

ZER DA ?

6) Hori da gizagaixoa, hori, ibili eta ibili bere etxetik irten ezinik.

ZER DA ?

7) Ez du hankarik eta lurrean dabil, ez du besorik eta zuhaitzetan kiribil.

ZER DA ?

8) Hankarik gabe ibiltzen dena eta urtean behin bakarrik alkandora aldatzen duena.

ZER DA ?

9) Oinez eda igeriz astiro samar dabil, lau hankaren gainean etxea darama aldean.

ZER DA ?

10) Etxea darama aldean itsaso nahiz lehorrean, sugearena du burua astiro dabil munduan.

Pentsa ezazu pixka batez eta igarri baietz! ZER DA ?

11) Matxin dut izena eta salto egiten dut, zelaian nabil oso azkar eta arin.

ZER DA ?

12) Zein da bost bokalak dituen animalia?

ZER DA ?

13) Linternatxo biziduna gauez argi egiten duena.

ZER DA ?

14) Ea ba, igarle bizkorra, zein da lumarik gabe hegan egiten duen aberea?

ZER DA ?

15) Zezen baten indarra dauka, zezen baten adarrak dauzka, zezen baten hankak dauzka, zezen baten isatsa dauka. Zer izan daiteke zezena ez bada?

ZER DA ?

16) Azpia zuri, gaina beltz. Udaberrian etorri, neguan ihes, hegoak mugitzen ditu hanken orde.

ZER DA ?

17) Zer dela eta zer dela, kristalezko etxean bizi dena? Ez barre, ez negar, libertatea behar.

ZER DA ?

Zer dela eta zer dela, hankarik eta hegorik ez duena?

ZER DA ?

18) Nire etxeak ez du ez leiho ez aterik, hil egiten naiz ateratzen nautenean etxetik.

ZER DA ?

19) Zer dela eta zer dela jantzirik ez eta poltsikoa duena?

ZER DA ?

20) Ez da txerria, bai ordea urdea, ez dabil kalean, ez eta etxean, ezkurak jaten ditu baso aldean.

ZER DA ?

21) Luzeak ditu belarriak eta isatsa laburra, bizi ohi da baserrian eta mendiko kobazuloetan.

ZER DA ?

22) Zer dela eta zer dela belarriak luzeak, isatsa motza, korrika, saltoka dabilen aberea?

ZER DA ?

23) Zer dela eta zer dela egunsentiko abeslaria?

ZER DA ?

24) Hankak luzeak, moko luzea, bere etxea kanpandorrea.

ZER DA ?

25) Ez naiz arraina eta uretan nabil, gauetan oso pozik abesten diot ilargiari.

ZER DA ?

26) Hau da, hau aberea! moko eta buztanik gabea, saltoka dabil lehorrean eta geldi nahiz igeri uretan.

ZER DA ?

27) Begiak handi eta distiratsuak, luma zuri eta leunak hor dabil moko okerturik ez du beldurtzen gaueko ilunak.

ZER DA ?

28) Hegazkin txikia gure giharretan, gasolina hartzen du gure gorputzeko zainetan.

ZER DA ?

29) Hezurrik gabeko gorputza, sabela, berriz, buruan eta hesteontzia lepoan. Nor da?

ZER DA ?

30) Gazta utzi ohi du, zeharo marraskatua, bere etsai amorratuena izan da beti katua.

ZER DA ?

31) Oroimen handiko aberea, usaimen handiko aberea, azala gogorra dauka eta munduko sudurrik handiena.

ZER DA ?

32) Beeka eta pozik larretan hazi nintzen, eskuak eta hankak loturik jantzia ari zaizkit kentzen.

Igarri al duzu nor naizen? ZER DA ?

33) Txoko, moko, kokoroko, bi hanka eta aurrean moko.

ZER DA ?

34) Herenegun arrautzatxoa, atzo berriz zorrotxoa, bihar ibiliko naiz zeruan txoritxo baten moduan.

ZER DA ?

35) Amak egin zidan etxea, ate eta leihorik gabea eta kanpora irten nahi badut harresia puskatu behar dut.

ZER DA ?